

ALBE

BERTSO AGENDA

2025 - 26 / ABENDUA - URTARRILA



ALBE GALA - AZOKAKO SAIOA - BERTSO JIRAK - JAIALDI BERRIA

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

www.albe.eus

SARE SOZIALAK

 albe_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa
Algorta (Getxo)
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





4

EKITALDIAK

8

**BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETA**

9

ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*

ABENDUA

3

EGUAZTENA

SOPELAKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

19:00

UDALETXEKO PLAZATIK
ABIATUTA

Bertso eta soinu, soinu eta bertso. Bikote ona dantzarako. Sospelako bertso jira musikatuak badu pisua eta indarra dagoenako.

Poteatzeko ez da bertsorik behar. Baina bertsoak entzutea poteatu bitartean egunero gure esku ez dagoen kapritxoia dugu. Ez izan hotzaren beldur, abenduan izan arren, eta erduze geugaz poteatzera eta bertsoak entzutea.



2018ko bertso jira / albe.eus

Bertsolariak:

Paule LOIZAGA

Andoni EGAÑA

Musikariak:

Gentzane FERNANDEZ

Ander TRABUDUA



Sopelako Udala

ABENDUA

14

DOMEKA

LEIOAKO NEKAZARITZA AZOKAKO BERTSO SAIOA

12:30

BULEBARRA

Nekazaritza azoka aitzakia polita izaten da gure lurreko produktuak bertatik bertara dastatzeko. Ortuariak, frutak, gaztak eta txakolinak protagonismo berezia hartzen dute honelakoetan.

Baina eskaintza zabal horri bertso eder-
rrak entzuteko aukera eransten badiogu,
gure urdaila ez ezik, gure gogoia ere poz-
tuko da!

Edan debalde bertsogintza bizi-bizitiki!



2019ko azokako saioa / albe.eus

Bertsolariak:

Irune BASAGOITI

Oihana BARTRA

Julio SOTO



ABENDUA

14

DOMEKA

ALBE GALA

12:00

ALGORTAKO IGERETXE HOTELA

Bertso urte oparoari tamainako errematea zor zaio. Algortako Ereaga hondartza eszenatoki natural zoragarria dugu helburu horretarako, eta Igeretxe hotela ostatu ezin egokiagoa: kok-tela, kanpoko eta etxeko bertsolariak, bideo emanaldia, musika zuzenean, bertsoak, kantu eta dantza...

Aurten, gainera, Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketako sariak ere banatuko ditugu bertan.

Zatoz gurekin bertso urtea amaitzera!



Bertsolariak:

Ane LABAKA

Sustrai COLINA

ALBEko bertsolariak

+BALENDIN ENBEITA

bertsopaper lehiaketako sari banaketa



Arrate Illaro iazko bertso saioan kantuan / albe.eus

ABENDUA

24

EGUAZTENA

OLENTZERO EGUNEKO BERTSO SAIOAK

13:00 URIBE KOSTA

Olentzerok makina bat lan izaten du gure eskualdean, hainbat herritan ospatzen baita ikazkin eskuzabalaren jaia. Aurten ere bertso saioak izango ditugu Algortan, Areetan eta Leioan.

ALBEko gaztetxoentzat ere aukera polita izaten da opariak hartu ez ezik, haiek ere euren bertsozko loreak guri oparitzeko.



Egon adi gure sare sozialei ekitaldiei buruzko informazio gehiago lortzeko.
Horra, horra bertso oparia!!!



ABENDUA

26

BARIKUA

ERANDIOKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

20:30 ESTRELLA TABERNATIK
ABIATUTA

Tradizio luzeko bertso jira dugu Erandiokoa. Berbots Euskara Taldeko lagun nekaezinekin daukagun harreman historiko eta emankorrari esker, bertsolariak protagonista izango dira, berriz ere, urtea amaitzeko bertako kale-tabernetan egingo den bertso jira musikatu honetan.

Esan daiteke Berbots bertso hots bilakatzen dela gurekin elkartzen direnetan. Eutsi goiari, lagun hoskideok!



Bertsolariak:

Nerea IBARZABAL
Etxahun LEKUE



ABENDUA

30

MARTITZENA

ABIANEKO BERTSO POTEOA

20:00

**ALGORTAKO KATEA
INGURUKO TABERNAK**

Gure agendan leku finkoa aurkitu duen bertso poteoa, Abian kultur elkartearekin elkarlanean antolatuta. Aurten hirugarren edizioa izango da eta, aurreko urteetan lez, bi bertsolari Algortako kateako tabernetatik kantuan izango ditugu urte amaieran.



Inazio Vidal eta Jon Maia iazko poteoan / albe.eus

Bertsolariak:

Unai MENDIBURU

Amets ARZALLUS



URTARRILA

17

ZAPATUA

LEIOAKO BERTSO JAIALDIA

19:00

**KULTUR LEIOA
AUDITORIUMA**

Leioako eta inguruetako bertsozaletasuna osasuntsu dago, horrexegatik dakargu urte berrirako bertso saio berria, Leioako udalaren babesarekin antolatuta.

Sei bertsolari Kultur Leioa Auditoriumean izango ditugu kantuan, bertsozaleen gozamenarako.

Sarrerak Kultur Leioa auditoriumean eta kulturleioa.janto.es plataforman egongo dira erosgai 3€-tan. Informazio gehiagorako egon adi gure sare sozialei.



2024ko jaietako saioa / albe.eus

Bertsolariak:

Peru VIDAL

Ekhñe ZAPIAIN

Unai MENDIBURU

Alaia MARTIN

Unai ITURRIAGA

Amets ARZALLUS

Gai-jartzailea: Beñat VIDAL



ABENDUA

20

ZAPATUA

BIZKAIKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO FINALA

17:00 LA CASILLA KIROLDEGIA



Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urte birik behin jokatzen da, eta aurten txapelketa urtea tokatu da. Maiatzean Udabarrian bertsotan sailkapen fasea jokatu zen, eta irailean hasita, txapelketako lehen fasea eta finalaurrekoen lehenengo buelta jokatu dira; finalaurrekoen bigarren buelta eta finala baino ez dira gelditzen. Poztekoa da txapelketan izen ezagunen ondoan aurpegi berriak ikustea: lurraldeko bertsogintzaren transmisioa osasuntsu dagoen seinale! Zaletasuna ere indartsu dago, saio gehienetan sarrera guztiak agortu izan dira eta.

Gure eskualdea, zorionez, ez dago dinamika zoragarri horretatik aparte. Aurtengo txapelketan ALBEko sei bertsolari aritu dira: Unai Mendiburu, Imanol Uri, Peru Vidal, Paule Loizaga, Aitor Esteban eta Jone Uri.



2023ko txapelketako finala / bertsozale.eus

Jone Uriak, aurreko txapelketako txapel-dunordea izan zenez, zuzenean finalaurrekoetan kantatu du; eta lehen fasearen ostean, Unai Mendiburu eta Imanol Uri ere sailkatu dira finalaurrekoetan kantatzeko. Zorte on hiruroi eta zorionak guztioi!

TXAPELKETAKO FASEAK ETA SAIOAK

FINALAURREKOEN BIGARREN BUELTA

BERMEO

AZAROAK 15 - 17:00

MARKINA-XEMEIN

AZAROAK 22 - 17:00

FINALA

BILBO

ABENDUAK 20 - 17:00

Saioetako sarrerak, www.bertsosarrerak.eus atarian eskuragarri



BALKOITIK BALKOIRA 2025




BERTSO JAIALDI MUNDIALA 2025





MARATOIA 2025



GORLIZKO JAIK 2025





HITZAREN DANTZA 2025



